

/ Nabarmentzekoak

- > Trafikoko zigorrak kudeatzeko bulegoaren aldaketa Romotik Algortara (2. or.)
- > Dani Mateoren umore zuzena eta garratza helduko da Muxikebarrira (3. or.)
- > Paddle surfa, zirkua, tirolina eta graffitia 11 eta 30 urte bitarteko gazteentzat (4. or.)

* Getxo Kirolak-eko fitness-muskulazio jardueren programa berria eta ordutegi gehiago (4. or.)



Kontzertu solidarioa. Hilak 24, ostirala, 19:45ean, Ama Mesedeetako parrokian, Pedro Guayar organo-jotzailearen eta Amelia Rodríguez sopranoaren eskutik. Bidesariaren alde.

Kontzertua. Hilak 25, larunbata, 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Ana Bejarano Concept" taldearen emanaldia. Sarrera: 5€.

**A-
GENDA**



Olana handi bik Punta Begoñaren etorkizunera hurbiltzen gaituzte

Neurri handiko bi olanek Punta Begoña Galerietako aldarmioak estaltzen dituen ohiko segurtasun sarea ordezkatu dute; Ricardo Bastidak bere eraikuntzaren mendeurrean diseinatutako monumentuaren izaera enblematikora egokitzeko. Hasiera-hasieratik, ondare-ondasun hori berreskuratzeko proiektuaren helburu nagusietako bat izan da herritarrei irekitzea eta haien parte-hartzea sustatzea; izan ere, prozesu horren helburua Getxoko eraikin ikonikoenetako bat herritarrei itzultzea da. Horregatik, Punta Begoña Fundazioak, kudeaketaren egungo arduradunak, erabaki zuen Abrako badian begiratoki horrek duen ikuspena aprobetxatzea eta fatxadak mihise

gisa erabiltzea, obraren fase berriaren etorkizuneko emaitza eta erabilpen publikoko izaera azaltzeko. Egitasmo hori aurrera eramateko, hau da, 300 metro koadro baino gehiagoko bi olana egitea, obra egiteko ardura duen Cabero Edificaciones enpresak finantzatu du eta diseinu-talde baten laguntza ere izan du. Ikuspegi artistikoa izanik, proiektu teknikoa irudi bihurtu da erakusteko galeriak udalerriko sorkuntzari, berrikuntzari eta erakusketari irekitako espazio publiko gisa sendotzen ari direla. Helburu hori lortzeko, bisita gidatuak, kultura-topaketak edo gizarte-gaieburuzko hitzaldiak egin dira hilabete hauetan, eta datozen hilabeteetan askoz sarriago egingo dira.



Usategi kafetegiaren kanpoko birgaikuntza abian

Usategi Kafetegiaren inguratzailea eta egokitzapen funtzionala birgaikitzeko lanak aste honetan hasi dira. Obrak egiteko epea lau hilabetekoa izango da, gutxi gorabehera; beraz, datorren urtarrilaren hasierarako amaitu daitezke, eta esleipenaren zenbatekoa 291.270€-koa da. Fase honetan eraikinaren fatxadak, estalkiak eta zoruak berrituko dira, eta irtenbide berriak proiektatuko dira, suteen aurkako babesari, zaratari, egiturazko eta erabilerako segurtasunari, osasungarritasunari eta abarri buruzko eskakizun teknikoak betetzeko. Estalki lau bat sortuko da, aire zabaleko terraza gisa erabiltzeko modukoa. Gainera, eraikinaren barruko irisgarritasuna hobetzeko espazioa egokitzeko aurreikusten da,

batez ere ekialdeko sarbideari dagokionez; izan ere, bertan kokatuko da igogailu bertikalerako sarbidea. Igogailuaren lanak uztailean amaitu ziren (martxan egon liteke, baina segurtasunez ez da erabiliko lanak egiten diren bitartean). Horren ondoren, kafetegia ustiatzeko lizitazioa egiteko fasea helduko da eta pertsona edo enpresa emakidunak lokalaren barrualdea egokitu beharko du bere proiektuarekin. Lanak direla eta, Genaratxu eta Usategi parkearen arteko oinezkoentzako bidea moztu da. Hondakinak gaika biltzeko edukiontzien bateriara bideratutako espazioak aldi baterako doitu beharko dira eta baita dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat erreserbatutako aparkaleku-plazak ere.

Getxo Sokatiraren plaza mundiala

Igande honetara arte, hilak 19, lur gaineko Munduko Sokatira Txapelketa hartzen du Fadurak, 16 naziotako 580 tiratzaileekin. Txapelketa zortzi mailatan jokatzen da: emakumezkoen 500 eta 540 kilo; gizonezkoen 560, 640, 680 eta 720 kilo; 580 kilo mistoa; eta 23 urtez azpiko gizonezkoen 600 kilo. Ostirala arte, hilak 17, klub txapelketa jokatzen da, eta bertan lau euskal talde dira: Gaztedi, Goiherri, Mutriku eta Getxo. Larunbatean eta igandean, hilak 18 eta 19, selekzioen txanda izango da, tartean Basque Country dela.



GETXO
SEPT.16-19 _ 2021



IRAILAK 16 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Sorgina Txirulina" (euskaraz), 4-8 urte.

Liburuaren aurkezpena. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), Maider Incián Orueren "Los secretos de las relaciones extraordinarias" liburuaren aurkezpena.

Literatura sarien banaketa. 19:00etan, Muxikebarrin (Arrigunaga aretoa), Ramiro Pinilla 4. eleberririk laburren lehiaketaren eta Txiki Baskardo 4. kontakizunen haur lehiaketaren sari banaketa. Sarrera gonbidapenarekin (Muxikebarrin eta Romo Kultur Etxean jaso behar dira).

Erakusketa. Irailaren 18ra arte, Areetako Ama Mesedeetako kalean, Javier Huarte-Mendicoaren margoak (<https://javierhuartemendicoa.wixsite.com/oleo>) eta Pott Pottery artista gaztearen lanak.

Odol-emate. Areetako Geltokia plaza. Goiz eta arratsalde.

IRAILAK 17 OSTIRALA

Dantza. 19:00etan, Muxikebarrin (Ereaga aretoa), "Imperfectas" Input Danzarekin. Sarrera: 8€.

Mugikortasunaren Astea. Gaueko ibilbidea bizikletaz. 21:30-23:30. Galeako aparkalekua. Izen-emateak: 605 74 90 64 y getxomovilidad@gmail.com

Getxophoto. Gaueko ibilbidea. 20:30etatik aurrera (gaztekeraz). Prezioa: 4€ (lekua mugatua). www.getxophoto.eus

IRAILAK 18 LARUNBATA

Umorea. 19:00etan, Muxikebarrin (Ereaga aretoa), Dani Mateo. Sarrerak agortuta.

Mugikortasunaren Astea. Plogging Getxo. 10:00-12:00. Aixerratoko errota. Izen-emateak: 605 74 90 64 y getxomovilidad@gmail.com

Getxophoto. Hamaiketako. 11:00etatik aurrera, Getxophotoren bulegoan (Amezti 6, 5-5), Ainhoa Resanorekin ("Elias" proiektua). Prezioa: 5€. Lekua mugatua. **Goizeko bisita.** 11:30etatik aurrera (euskaraz). Prezioa: 4€ (lekua mugatua). **Getxophoto por ...** Alaña Martín eta Imanol Uribe (bertsolaria). 19:00etatik aurrera (euskaraz eta gaztekeraz). Prezioa: 5€ (lekua mugatua).

Literatura ibilbidea. "Ramiro Pinilla y su obra" Gustavo Iduriagarekin (gidaria). Irteera 11:00etan San Nikolas plazatik (Algorta). Gaztekeraz. Dohainik. Aurretiko online erreserba: www.getxo.eus/pinilla

Bisita gidatua eta antzeztua Portu Zaharrera. 11:30-12:30. Informazioa eta erreserbak: Turismo Bulegoa, 94 491 08 00 edo infoturismo@getxo.eus

IRAILAK 19 IGANDEA

Mugikortasunaren Astea. Autorik gabeko Eguna. Haurrentzako ohe elastikoak, kirolak, jokoak... 08:00etatik 20:00ak arte, Areetako eta Algortako erdiguneetan.

Haurrentzako ikuskizuna. 18:00etan, Muxikebarrin (Ereaga aretoa), "Kantu kolore: ametsen urtebetetzea". Sarrera: 5€.

Bisita gidatua eta antzeztua. "deapie". Horacio Echevarrieta. 11:30-12:45. Turismo Bulegoa: 944910800 / infoturismo@getxo.eus

Literatura ibilbidea. "Ramiro Pinilla y su obra" Gustavo Iduriagarekin (gidaria). Irteera 11:00etan San Nikolas plazatik

(Algorta). Gaztekeraz. Dohainik. Aurretiko online erreserba: www.getxo.eus/pinilla

Getxophoto. Goizeko bisita. 11:30etik aurrera (gaztekeraz). Prezioa: 4€ (lekua mugatua). **Familientzako bisitak.** 12:30etik aurrera (euskaraz-gaztekeraz). Prezioa: 4€.

IRAILAK 20 ASTELEHENA

Odol-emate. Bidezabalgo osasun zentroaren ondoan, 16:30etik 21:00etara.

IRAILAK 21 ASTEARTEA

Odol-emate. Algortako Erredentoreko aparkalekuan, 16:30etik 21:00etara.

IRAILAK 22 ASTEAZKENA

Liburuaren aurkezpena. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Vida de vidas", Pablo Garrido horren egilearen eskutik.

37. Nazioarteko Folk Jaialdia. Muxikebarri (Ereaga aretoa), 19:00etan, Roberto eta Miren Etxebarria: "Hamaikatu kopla... pandero baten konture". 8€.

IRAILAK 23 OSTEGUNA

37. Nazioarteko Folk Jaialdia. Muxikebarri (Ereaga aretoa), 19:00etan, Judith Mateo. Sarrera: 10€.

IRAILAK 24 OSTIRALA

37. Nazioarteko Folk Jaialdia. Muxikebarri (Ereaga aretoa), 19:00etan, Amparanoia: "Himnopsis colectiva". Sarrera: 20€.

Getxophoto. Gaueko ibilbidea. 20:30etik aurrera (euskaraz). Prezioa: 4€ (lekua mugatua). www.getxophoto.eus

Kontzertu solidarioa. 19:45ean, Ama Mesedeetako parrokiaren, Pedro Guayaz organo-jotzailearen eta Amelia Rodríguez sopranoaren eskutik. Bidesariaren alde.

IRAILAK 25 LARUNBATA

37. Nazioarteko Folk Jaialdia. Muxikebarri (Arrigunaga aretoa), 12:30ean, Titiriteros de Binefar, eta 17:00etan, Trakamatraka. Familiarako. Sarrera: Muxikebarrin eta Romo Kultur Etxean jaso beharreko gonbidapenez. Muxikebarri (Ereaga aretoa), 19:00etan, Carlos Nuñez. Sarrerak agortuta.

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Ana Bejarano Concept" taldearen emanaldia. Sarrera: 5€.

Ipuin kontaketa: Storytime. Algortako Kultur Etxean, 11:00etan, "The far west", Kids&Us Getxo-Algortaren eskutik. Ingelesez. Familia osoarentzat. Dohainik. Aurretiko izen-ematea: getxo@kidsandus.es

Getxophoto. Hamaiketako. 11:00etatik aurrera, Getxophotoren bulegoan (Amezti 6, 5-5), Erika Ede (Guggenheim Bilbao Museoko argazkilaria). Sarrerak agortuta. **Goizeko bisita.** 11:30etatik aurrera (gaztekeraz). Prezioa: 4€ (lekua mugatua). **Getxophoto por ...** Cristina Lizarraga (Belakoko abeslaria, artista, aktibista). Prezioa: 5€ (lekua mugatua).

Bisita gidatua eta antzeztua Portu Zaharrera. 11:30-12:30. Erreserbak: Turismo Bulegoa, 944910800 edo infoturismo@getxo.eus

IRAILAK 26 IGANDEA

37.º Festival Internacional de Folk. Muxikebarri (Ereaga aretoa), 12:30ean, Bitartean. Familiarako. Sarrera: 8€. 19:00etan, Cyclical Tango (100 años de Astor Piazzolla). 10€.

Getxophoto. Goizeko bisita. 11:30etik aurrera (gaztekeraz). Prezioa: 4€ (lekua mugatua). **Familientzako bisitak.** 12:30etik aurrera (euskaraz-gaztekeraz). Prezioa 4€.

Bisita gidatua eta antzeztua. "deapie". Horacio Echevarrieta. 11:30-12:45h. Irailaren 26an egingo da berriro. Argibide gehiago Turismo Bulegoan: 94 491 08 00 / infoturismo@getxo.eus

Afganistani buruzko Adierazpen Instituzionala onartuta

EAJren, PPren, PSE-EEren eta Elkarrekin Podemosen aldeko botoekin, eta EH Bilduren abstentzioarekin, Udaleko Bozeramaileen Batzordeak Afganistani buruzko Adierazpen Instituzional bat onartu du. Horretan, besteak beste, Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko

Gobernuari jakinarazten die "erarik zintzoenean lankidetzan jarduteko prest dagoela eta euren eskura jartzen dituela gure lurraldera etor litezkeen afganiar herritarren beharrak bideratzeko balio dezaketen gizarte-, hezkuntza- eta beste edozein motatako baliabideak". Aldi berean, udalak eskatzen du

"Afganistango emakume eta kolektibo ahulenean giza eskubideen arloan jasan duten atzerakadari arreta berezia jartzeko" eta "korridore humanitarioak igarobide seguruak ahalbidetzeko, euren herrialdeak utzi behar dituztenentzat".

Adierazpen osoa: <https://la-bur.eus/x0LKN>

Trafikoko zigorrak kudeatzeko bulegoaren aldaketa Romotik Algortara

Asteazken honetan hasi da trafiko-arauak hausteagatik zehapen-prozedura kudeatzeko zerbitzua emateko kontratu berria, bai eta Getxoko Udalaren trafiko-zehapenak borondatez biltzeko kontratua ere.

Esleipendun suertatu den enpresak Algortako **Salsidu kaleko 35. zenbakiko atzeko so-**

lairuan emango du zerbitzua, eta **94 666 01 09** telefono-zenbakian ere emango du arreta. Beraz, Romoko Gobelaurre kaleko 37-BJ 2 lonjan eta 94 481 03 02 telefono zenbakian eskaintzen ziren zerbitzuak jadanik ez daude martxan.

Bulegoaren ordutegia, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 13:00etara, eta asteazke-

netan, 16:30etik 19:30era ere izango da. Larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara. Udako ordutegia (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra) astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara izango da, eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara.

Emaila mantentzen da: trafikozigorra@getxo.eus

Izenematea zaintzaileentzako tailerretarako

Irailaren 27ra arte zabalik egongo da Udalak 2021/2022ko ikasturterako mendekotasun egoeran dauden etxekoentzat antolatutako doako tailerretarako izena emateko epea. Taldeak mugatuak izango dira, gehienez 10 pertsonentzat, eta egungo egoera sanitarioa dela eta, behar izanez gero, kurtsoen baldintzak aldatu edo suspenditu ahal izango dira. Urritik ekainera bitartean hu-



rengo programak eskainiko dira, ordutegi eta udalerriko auzo desberdinetan: taldeko laguntza psikologikoa, erlaxazioa, interbentzio duala eta estimulazio kognitiboa, Bizkaiko Foru Aldundiak men-

dekotasun egoeran egiaztatutako bizi-lagunak zaintzen dituzten familiarrei laguntza eskaintzeko.

Izen-ematea Algortako edo Areetako HAB, Herritarrentzako Arreta Bulegoetan egin beharko dute pertsona interesatuek, aurretiko hitzordua 944660000 telefono zenbakian eskatu ondoren. Informazio gehiago www.getxo.eus udal webgunean edo 683 193 092 zenbakian kontsulta daiteke.

Irailaren 24an, herriko jaia Getxon

Datorren ostiralean, irailak 24, Ama Mesedeetako egunean, 2021. urteari dagokion herriko jaia izango da Getxon. Hori dela eta, Udaleko bulegoak eta beste udal sail batzuk (Kultur Etxeko bulegoak, Udal Liburutegiak, Euskaltegia, Andrés Isasi Musika Eskola...) itxita egongo dira. Romo Kultur Etxean jai eguneko ordutegia izango dute, hau da, 09:00etatik 21:00etara (liburutegiak itxita egongo dira) eta baita Getxo Kirolak-ek ere (gimnasioa irekita 10:00etatik 14:00etara, eta gainerako instalazioak aurretiko erreserbak eginda).

Turismo Bulegoa eta Bizkaia Zubiko Informazio Gunea ohiko ordutegian egongo dira zabalik.



Udaletxeko burdineria eta forja zaharberritzea

Aste honetan udaletxeko burdineria eta forja-elementuak zaharberritzeko lanak hasiko dira. Bere aurrekontua 171.473€-koa da eta udal-erakina kontserbatzeko jarduketaren barruan daude; dagoeneko amaituta dagoen balastradaren berreraikuntza osoa barne hartzen du. Burdineria eta forjaketa konpontzeko lanek bost hilabeteko iraupena izango dute, eta eragozpenak sor ditzakete, eraikinaren kanpoko alde batzuk hartu behar direlako obrako etxolak, aldamiok eta materialak jartzeko, eta makineriaren mugimendua izango delako. Egindako jarduketek dagokienez, amaituta daude osoko bilkuren soinu-maila hobetzea, hormak pintatzea, tarima lixatzea eta bernizatzea, eta aurtun eta 2022aren hasieran egin beharrekoak dira osoko bilkuren aretoko argiak berritzeta, beheko eta lehen solairuak eraberritzea, komunak irisgarritasun-arauari egokitzea eta 0 solairuko artxibo-gunea eta bulegoak hobetzea. Halaber, datorren urtean, eraikina inguratzen duen perimetroa egokitu da.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi-tzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazioko zinegotzia: **Ainhoa Galduroz**
Zuzendaria: **Javier García**.
Erredaktoreburua: **Itziar Aguayo**.
Erredakzioa: **Nekane Ardanza**.

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel.:94 466 03 20. 48991 Getxo.
e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus
Arte arduradunak: **Bostnan Bilbao, S.L.**
Inprimaketa: **Comeco Gráfico Norte, S.L.U.**
Banaketa: **Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua**
Gordailu legala: **BI-388-87**



Dani Mateoren umore zuzena eta garrantza helduko da Muxikebarrira

Muxikebarriko Ereaga aretoan larunbatean, hilak 18, 19:00etan, Dani Mateo umore eszenako komiko eta aurkezle ezagun eta onenetakoaren ekitaldia izango da. Kazetaria, talebistako eta irratiko aurkezlea, komikoa eta aktorea, pailazo ilustratutzat jotzen du bere burua berak. Estatuan telebistako eta irratiko hainbat saiotatik pasa

da. Gaur egun, *Zapeando* aurkezten du eta *El Intermedio* saioaren ohiko kolaboratzailea da. *Comedy Central* eta *Club de la Comedia* izenekoetan askotan hartu du parte. Umore zuzena eta garrantza du ezaugarri nagusi artista honek eta ez ditu axolagabe utziko ikuskizunera joaten direnak. Sarrerak agortu dira.

Urriaren 1etik 3ra Areetako Geltokia plazan eta Romo Kultur Etxean

Komiki Azoka itzuliko da eta Kim eta Simónides egileak omenduko ditu

Pandemia dela eta, 2020an, behin-behinean Komiki Jardunaldi bihurtu bazen ere, aurten itzuliko da Getxoko Komiki Azoka. Urriaren 1etik 3ra ospatuko da Areetako Geltokia plazan eta bertan sektore horren 40 saltoki kokatuko dira. Halaber, hilaren 1ean eta 2an, Romo Kultur Etxean aurkezpenak, mahai-inguruak, hitzaldiak eta bederatzigarren artearen inguruko hainbat jardura izango dira. Bi tokietarako sarrera doakoa izango da, edukiera bete arte, eta osasun-araudiaren neurri guztiak errespetatuko dira.


Ohi denez, Azokan hainbat artista izango dira, ekintza eta sinaduren txandetan parte hartzeko. Horien artean, eskarmentu handiko Kim eta Simonides komikigileak nabarmendu behar dira, Azokak komikiaren pertsonaia ospetsuei egin ohi dien omenaldiko protagonistak izango baitira.

Gainera, Azokak kartela du, hau da Santiago Sequeiros (Buenos Aires, 1971) komikigile eta ilustratzaileak egin du, Espainiako komikiaren berezko estilo nabarmenetako bat duen egileak, hain zuzen ere. Aurten, azkenean, *Romeo Muerto* izenekoa kaleratu du, 25 urte baino gehiagoko proiektu pertsonala.



Input Danza taldeak "Imperfectas", laborategi gunea aurkeztuko du

Input Danza taldeak ostiralean, hilak 17, *Imperfectas* izenburuko muntaia aurkeztuko du Muxikebarrin, bere hiru interpreteren barne mundu konplexua erakusten duena. Saioa 19:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 8€koa da. Konpainiak berak adierazi duenez, proiektua laborategiko espazio bat sortzeko beharretik sortu zen, "askatu" ahal izateko esperimentazio gunea bat, emaitza askatzen hasi eta ikerketan zentratuz. Testuinguru horren barruan, konfiantzazko leku bat sortu nahi da, pertsona gisa benetan ireki ahal izateko eta "gure interpre-



tearengana" eramateko modua aurkitzeko. "Gure izatearen onarpenean zentratu, bere kontraesan guztiak".

"Ametsen urtebetetzea" haurrentzako musika ikuskizuna

Haurrak (2-12 urte) eta familiak dira *Ametsen urtebetetzea* euskarazko musika ikuskizunaren publiko nagusia. Kantu Kolore taldearen eskutik, hori igandean, irailak 19, 18:00etan ikusi ahal izango da Muxikebarrin. Zuzeneko musika-rekin, muntaiak elkartasuna, adiskidetasuna eta bestelako balioak jorratzen ditu. Sarrera: 5€.



BERRI LABURRAK

* **Begirale ikastaroa.** Bizarra Lepoan elkarteak astialdiko begirale ikastaroa antolatu du 2021eko urritik 2022ko maiatzera bitarteko asteburuetan. Iraupena 150 ordu teoriko eta 160 ordu praktiko izango da. Helburua da aisialdi euskalduna sustatzeko agente aktiboak trebatzea eta baldintzak euskaraz ondo komunikatzeko gai izatea eta praktikak egin baino lehen 18 urte beteta izatea dira. Matrikula egiteko epea urriaren 1era arte egongo da irekita www.bizarralepoan.eus webgunean. Udalak diruz lagunduko du. Informazioa: Info@bizarralepoan.eus / 94 491 03 87.

* **Balendin Enbeita Lehiaketa.** Irailaren 30era arte zabalik egongo da Balendin Enbeita bertsopaper Lehiaketaren XIV. ediziorako gai, neurri eta doinu librean idatzitako bertso sortak aurkezteko epea. Adinaren arabera, gazteen (17 urtera artekoak) eta helduen (18 urte edo gehiagokoak) atalak daude. Parte hartzaile bakoitzak nahi beste bertso-sorta aurkez dezake balendinenbeita@gmail.com helbidean. Helduentzako sariak 400 eta 1000€ artekoak izango dira eta gazteentzat 100 eta 300€ artekoak. Informazioa: www.albe.eus



Gobelako gimnasioa berriz irekiko da, bertako kontrola bideo-zaintzarekin eginez

Getxo Kirolak-eko fitness-muskulazio jardueren programa berria eta ordutegi gehiago

Getxo Kirolak-eko fitness-muskulazio gimnasiotan denboraldi honetarako jarduera eta zerbitzu eskaintza birdiseinatu egin da. Beraz, muskulazio aretoez eta entrenamendu aerobikorako makineriaz gainera, pertsona inskribatuek dohainik eskura dezakete jardueren programa bat Fadurako edo Gobelako aretoetan, astelehenetik ostiralera, ordu erdiko saiotan. Lehenengo klasea 7:45ean hasiko da eta azkena 21:30ean. Gainera, larunbatero 11:00etatik 12:30era programazio berri honetako jardueraren batekin lotutako master class bat emango da.

Eskaintza

Modalitate eskaintzak honakoak

dira: cross training, entrenamendu funtzionala, body pump, adinekoengana zuzendutako bizkortzea, intentsitate handiko tarteen entrenamendua (Hiit), bihotzerako saio leuna, entrenamendua banda elastikoekin, body combat, global fitness, hipopresiboak eta abdominalen zein lunbarren entrenamendua.

Gimnasioko kuotak balio du bai Fadurako eta bai Gobelako aretotan sartzeko, eta areto bakoitzak bere jarduera egutegia izango du. Gimnasioaren abonua Fadurako sauna eta bainu turkiarra dohainik erabiltzeko aukera ematen du. Zerbitzu guzti hauetarako prezioa hilean 37,40€-koa da (26,50€-koa inskripzioa hilaren 11n egiten denean eta

16,80€-koa hilaren 21etik aurrera egiten denean).

Gimnasio berri askoren kudeaketan bezala, Gobelakoa bideozaintza-sistema baten bidez kontrolatuko da, eta ez da langilerik egongo, antolatutako eskoletan izan ezik. Faduran, berriz, aurrez aurreko arreta mantenduko da. Bi instalazioetan ordutegiak zabalduko dira. Horrela, aretoak astelehenetik ostiralera egongo dira zabalik 7:30etik 21:30era (eta asteburu eta jaiegunetan 8:30etik 21:30era).

Informazio gehiago: getxokirolakfitness@gmail.com, Getxo Kirolak-eko jendearen arretarako bulegoetan eta getxokirolak.eus webgunean.

Getxo Ekinez programaren barruan

Paddle surfa, zirkua, tirolina eta graffitia 11 eta 30 urte bitarteko gazteentzat

Udaleko Gazteria Zerbitzuak Getxo Ekinez programaren barruan irailerako eta urrirako antolatu dituen aire zabaleko jardueretan parte hartu ahal izateko izena emateko epea zabaldu du. Jarduera horiek COVID-19aren ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko antolatu dira eta 8€-ko aurrekontua dute.

Jarduerak 11 eta 30 urte bitarteko gazteentzat dira, doakoak, eta bertan osasun baldintza guztiak beteko dira.

Egitaraua

- **Paddle Surf.** Irailak 17. Bi talde (16:30-18:00 eta 18:30-20:00) eta irailak 18an beste bi (10:00-11:30 eta 12:00-13:30) Kirol Portuan. 11 urtetik 30ra bitartean. 1:30 orduko ikastaroa, begirale laguntzaileekin. Gehienez 10 pertsonako lau talde osatuko dira.

- **Zirkua.** Irailak 22 (17:00etan) Areetako Geltokia plazan. 11



urtetik 17ra bitartean. Gehienez 20 pertsona. Malabareak, orekak, akrobaziak, aireko akrobaziak... 10 parte-hartzaileko bi taldeetan.

- **Tirolina.** Urriak 9. 11 urtetik 30era bitartean. "Mendexa Abentura"ra txangoa (Lekeitio). Autobusez honako ordutegiarekin: irteera 10:00etan (Romon eta Algortan gelditze-ko aukerarekin) eta helmuga 19:00etan. 11-30 urte. 50 plaza.

- **Graffitia.** Urriak 19 (17:00etan) Romoko Santa Eugenia plazan.

14 urtetik 25ra bitartean. 20 plaza.

Inskripzioak

- **Gazte Bulegoa.** Tangora Etxea. Algortako Etorbidea 98 (Algorta). Tel.: 94 466 03 53/ 688 88 09 85.

gaztebulegoa@getxo.eus

- **"Gauegun" Gaztelekua.** Urgull 4 (Algorta). Tel.: 94 466 03 56. gauegungaztelekua@getxo.eus

- **"Gure Gune" Gaztelekua.** Romo Kultur Etxea-RKE. Santa Eugenia plaza 1 (Romo). Tel.: 94 466 00 22 guregunegaztelekua@getxo.eus

XIII. Jon Antruejoren Oroimenezkoa

Azkorriko zelaian XIII. Jon Antruejoren Oroimenezko futbol Txapelketa jokatuko da asteburuan. Haurmailako zortzi taldek jokatuko dute txapelketa, hau da, A multzoan Athletic Club, Barakaldo, Vasconia eta Danok Bat taldeek, eta B multzoan Getxo Futbola Fundazioa, Antiguoko, Santutxu eta Ariznabarra taldeek. A multzoko partidak larunbatean, hilak 18, 9:30etik aurrera jokatuko dira, eta B multzokoak arratsaldeko 15:00etan hasiko dira. Igandean, hilak 19, finalerdiak 10:15etik aurrera izango dira eta finala 13:00etan.

MERKATARITZA ETA ENPRESA

Getxo Enpresa: Sare sozialetan zabaltzeko zerbitzua

Getxo Enpresak, laster, sare sozialetan bidezko doako informazio zerbitzu bat jarriko du martxan tokiko saltoki eta enpresentzat. Horrela, elkartekideek beren negozioari, produktuei eta zerbitzuei buruzko informazioa zabaldu ahal izango dute aldiaren behin, elkarrekin Facebooken, Instagramen eta Twitterren dituen sare sozialen bitartez. Mezu elektronikoen bidez testu bat bidali beharko dute, gehienez 80 hitzeko argitalpen bakoitzeko, eta pare bat, argazki formatu horizontalean eta bertikalean. Getxo Enpresak hilean informazio bat argitaratuko du elkartearen kide bakoitzeko.

Erakusleihen ibilbidea Getxophoton

Hilabete honetan ospatzen ari den Getxophoto Jaialdiaren baitan, Algortako Dendak Elkartearen 33 erakusleihak nazioarteko lehiaketa honetako beste hainbeste argazki erakusten dituzte egun hauetan. Gidaliburu batek idazlanen izenburuak eta egileak biltzen ditu, eta baita horiek ikusteko saltokiak ere. Gainera, berrikuntza gisa eta Algortako argazkilari baten eskutik, ikusgai dauden argazkiak bisitatzeko lau ibilbide prestatu dira. Horietan, irudiei eta egileei buruzko informazioa eta erakusketan parte hartzen duten denden zehetasunak azaltzen dira.

Era berean, Diego Jambrinak (mundutik 50 mm-ra) egindako *Amigos de pies y alma* lanari egile getxotar baten argazki onenaren saria ematea erabaki du Algortako Dendak elkarteak. 100€-ko txartela jaso du elkartearen dendetan kontsumitzeko.